

JOHANNES BRAHMS

Pianista, konpositorea eta orkestra-zuzendaria, Johannes Brahms (1833-1897) konpositorerik "klasikoena" dela jotzen da konpositore erromantikoen artean. Tradizio alemaneko sinfoniagilerik handienetakoen artean aitortua dago eta Hans von Bülow jaunaren "hiru be" ospetsuetako bat da, esamolde hori egin baitzuen Bach-Beethoven-Brahms hirukoari esateko.



Johannes Brahms, ca. 1889

[Johannes Brahms](#) Hanburgoko Stadttheater antzokiko eta Philharmonisches Staatsorchester orkestrako kontrabaxu-jotzaile baten eta jostun baten semea izan zen, 1833ko maiatzaren 7an jaioa. Hiru senideetan bigarrena, lehen musika-ikasgaiak aitarengandik jaso zituen (Johann Jakob), eta aitak ere biolina jotzen irakatsi zion, bai eta biolontxelo pixka bat ere. 1840an, Friedrich Coselekin pianoa ikasten hasi zen, eta bi urte geroago, irakaslea kexatu zen, mutikoak "sekula ez zuelako bazter uzten bere konposaketa amaigabea". Izan ere, 1845erako, jada, pianorako sonata bat idatzia zuen, baina gurasoek ez zuten jarduera hori onartzen eta semeak interprete gisa perspektiba hobek izanen zituela uste zuten. 10 urte zituela, piano-jotzaile gisa egin zuen debuta kontzertu pribatu batean.

1845etik 1848ra, Brahms Eduard Marxsenekin ikasi zuen. Marxsenek pertsonalki ezagutu zituen [Beethoven](#) eta [Schubert](#), eta konpositore klasikoek lanak miresten zituen; [Mozart](#) eta [Haydn](#)enak, bereziki. Halaber, [Bach](#)en jarraitzaile sutsua zen. Marxsenek konpositore haiekiko errespetua erein zuen Brahmsengan eta ziurtatu ere gaztearen piezek aipatu tradizioa zutela oinarri. 1849an, Brahms bere lanetako bat jo zuen errezitaldi batean eta arras kritika onak jaso zituen. Ondotik, hainbat estreinaldi gehiago etorri ziren, pianorako moldaketa eta fantasia batzuen argitalpena eta, 1851n, bere lehen lan ospetsuak. Brahms, hala ere, izugarri zorrotza zen bere buruarekin eta, geroago, gazte garaiko lanen ia zantzu guztiak suntsitu egin zituen, abesbatza-piezen eskuizkribuak barne.

1850eko hamarkadaren hasieran, konpositorearen bizitzako topaketarik garrantzitsuenetako hiru gertatu ziren. Lehenik eta behin, [Eduard Reményi](#) biolinista hungariarra ezagutu zuen, eta musikari horrek ijitoen eta erromanien musikan barneratu zuen (czardak, adibidez). Geroago, musika hori bere lanik arrakastatsuenetako eta ezagunenetako batzuen oinarri bihurtu zuen, [Hungariar dantzak](#) piezen bi sortarekin (1869 eta 1880). Bigarren topaketa [Robert Schumann](#)ekin izan zen. Brahms haren miresle handia zen eta adiskide min egin ziren, eta harreman anbigua izan zuen Roberten emazte [Clara Schumann](#) pianista birtuosoarekin, emakumea 1896an hil zen arte. Azkenik, 1853ko maiatzean, [Joseph Joachim](#) ezagutu zuen, hau da, biolin-jotzaile birtuoso eta berehala adiskidetu ziren.

1850ean, Schumannek Hamburgora egindako bisita izan zela eta, Brahms, bere lagunek eskaturik, bere obretako batzuk bidali zizkion, paketa baten barruan, konpositore ospetsuaren iritzia jasoko zuelakoan. Paketa, ordea, ireki gabe itzuli zitzaion. Baina, 1853an, Joachim aurkezpen gutun batekin, Brahms bere nahia lortu eta Robertek eta Clara Schumannek hartu zituen. Robert txundituta geratu zen gaztearekin, eta Neue Zeitschrift für Musik aldizkarian artikulu bat idatzi zuen, "Garaiak modu gorenean eta idealean adieraztera bideratutako" norbait bezala goraiapatuta. Schumanni haxe idatzi zion laudorio hark "publikoarengan hain itxaropen apartak sortuko" zituenez, "ez daidala nola has naitkeen espektatiba horiek betetzen". Schumannen babesa, hala ere, bultzada ederra izan zen Brahms gaztearentzat, eta hurrengo hilabeteetan, hainbat lan argitaratu eta errezitaldu ugari eman zituen.



Entsegu Irekiaren Fitxa Didaktikoa
Apirilak, 28 11:00 Baluarteko areto nagusian
NOSeko 10.denboraldi-kontzertua

1854tik 1860ra, Brahmsen ez zuen lan gehiago argitaratu eta konposizioan aritu zen buru-belarri. Bere [Pianorako 1. Kontzertua](#) lantzen hasia zen, baina lana hasieran uste baino gehiago luzatu zen.

Konposizioarekin batera Detmold hiriko gortean aritu zen lanean, hainbat obra onduta. Era berean, emakumezkoen abesbatza bat sortu eta zuzendu zuen eta talde horri ere ahots-pieza batzuk eskaini zizkion. Garai hartakoak dira, halaber, pianorekin egindako bere lehen kuartetoak.

1860rako, une hartako konpositorerik garrantzitsuenetako eta eskatuenetako bat zen, eta Alemaniako musikaren etorkizunari buruzko eztabaida batean parte hartu zuen. Ordurako, sumatu egiten ziren estetika eta kritika musikalaren inguruan berehala sortuko ziren bi taldeak, elkarren kontrako bi taldeak: batetik, tradizionalistak, nagusiki Brahms buru zutela, eta bestetik, musika berriaren aldekoak, [Liszt](#) eta bere jarraitzaileak eta [Wagner](#) buru zirela.

1862az geroztik, egonaldi luzeak egin zituen Vianan, musika arloan harreman garrantzitsuak eginda; haien artean, [Eduard Hanslick](#) kritikari ospetsua. Kritikaria Brahmsen defendatzaile handienetako bat izan zen. Azkenean, Vianan behin betiko kokatu zen eta, 1863an, Wiener Singakademie akademiako zuzendari izendatu zuten; akademia hartarako, eta [Mendelssohn](#)en lorratzari jarraikiz, Barroko eta Klasizismo garaietako konpositore alemanen lanak programatu zituen.

1865ean, ama hil zitzaion, eta heriotza hark inspiraturik: [Requiem aleman bat](#) ondu zuen, hots, lan hori oraindik ere da bere lanik ospetsuenetako bat. Berehalakoan izan zuen arrakasta, ez bakarrik Alemanian, Europako beste herrialde batzuetan ere, eta lanak ere nazioarteko agertokietan eman zion Brahmsi ospea. Batetik, arrakasta hori aipatu behar da, eta bestetik, jendeak [Hungariar dantzak](#) lanari, baltse batzuei eta [lieder](#) bilduma batzuei egindako harrera izugarria; bada, horri esker, buru-belarri ekin zion aspaldian ontzen hasitako lanak konposatzeari; eta haien artean, bereziki, [Lehen Sinfonia](#) zegoen.

1872tik 1875era, Vienako Gesellschaft der Musikfreunde-ko zuzendaria izan zen. Interpretak profesionalak bakarrik nahi izan zituen orkestrarako, eta lehenago egin bezalaxe, konpositore alemanen obrak programatu zituen Bachen garaiaz geroztik, baina Alemaniako Eskola Berrikoak alde batera utzita. Leku horretan, [Bariazioak Haydnen gai baten inguruan](#) lana estreinatu zuen, bere lanik garrantzitsuenetako bat, alegia. 1876an, bere [Lehen sinfonia](#) estreinatu zuen, 1856az geroztik landutakoa. Ondotik, orkestrarako lan sorta ederra etorri zen, haien artean [Bigarren sinfonia](#) (1877), [Biolinarako kontzertua](#) (1878) eta [Jaialdi akademiko baterako obertura](#) (1880), azken hori Breslauko Unibertsitateak emaniko ohorezko tituluaren ondotik ondua. Urte hartan berean, [Obertura tragikoa](#) idatzi zuen. Hurrengo urteetan, [Hirugarren](#) (1883) eta [Laugarren](#) (1885) sinfoniak estreinatu zituen.

Orduz geroztik, aitortza eta ohoreak jaso zituen etengabe, hala nola Maximilianoren Ordena Bavariarra Zientzia eta Arteetarako, eta Meiningen Etxeko Ordenaren Komandantearen Gurutzea. 1889an, Hanburgoko herritar ohoretsu izendatu zuten. 1880ko hamarkadan, Brahmsen lanak Europa osoan ematen ziren etengabe. Horrenbestez, bere karrerak ez zuen bestelako bultzadarik behar; horregatik, 1890ean, zalanza izan zuen erretiratu edo ez. Zorionez, Richard Mühlfeld klarinete-jotzailearenganako mirespenak bultzaturik, konposizioarekin interesa areagotu zitzaion eta hainbat lan idatzi zituen instrumentu hartarako. Era berean, pianorako hainbat lan ondu zituen, bai eta [Organorako hamaika preludio koral](#) ere bai.

1882an, Brahmsen [Pianorako 2. kontzertua](#) ondu zuen. Lana Meiningen hirian estreinatzearen karira, [Hans von Bülow](#) topatu zuen eta, harrezkerostik, bien arteko lankidetzak emankorra hasi zen. Zuzendari ospetsuak honela idatzi zion bere emazteari: "Badakizu zer pentsatzen dudan Brahmsi buruz: Bach eta Beethovenen ondotik, konpositore guztien artean handiena, sublimeena". Hori "Hiru B" ezagun horien hasiera izan zen.



Entsegu Irekiaren Fitxa Didaktikoa
Apirilak, 28 11:00 Baluarteko areto nagusian
NOSeko 10.denboraldi-kontzertua

1896an, ikterizia zuela atzeman zioten eta, geroxeago, medikuek ikusi zuten gibleko minbizia zuela. 1897ko martxoaren 7an, azken aldiz agertu zen jendaurrean, Hans Richter-ek haren *Laugarren sinfonia* zuzendu zuen kontzertuan, hain zuzen. Entzuleek lau mugimenduetako bakoitza txalotu zuten bero-bero. Brahmsen osasunak txarrera egin zuen pixkanaka eta, azkenik, urte hartako apirilaren 3a zendu zen. Vienako Zentralfriedhof-en dago ehortzia.

1. SINFONIA, DO MINORREAN, OP. 68

Brahmsen sinfoniak sinfoniaren garapenaren goren unea dira musikaren historian. Beethovenek generoaren bilakaera erraztu zuen Klasisismoaren eta Erromantizismoaren artean, eta [Mahler](#) konpositoreak, berriz, gauza bera egin zuen XX. menderako aldaketan. Brahms denboraldi horren erdigunea da, sinfonia sendotu, finkatu eta bururaino eraman baitzuen hizkuntza erromantikoan. Izan ere, bere *Lehen sinfonia* Beethovenen *Hamargarrena* dela jo ohi izan da, hau da, Bonneko konpositorearen katalogoaren jarraipen logikoa; eta Brahmsen azken sinfoniak, *Laugarrenak*, lurra prestatu zuen Mahler gaztearentzat, haren adiskidea izan baitzen.

Brahmsen gutxienez 14 urte eman zituen bere *Lehen Sinfonia* lantzen. Izan ere, "Beethovenen oinordekoa" zen eta horrek kanpo presioa eragiten zion, baina berak ere presioa eragiten zion bere buruari. Horrek bere konfiantza higatu zuen eta ez zuen bere burua prestatua sentitu bere lehen sinfonia aurkezteko, harik eta konpositore ospetsua izan arte.

21 urte bakarrik zituela, 1854an, Beethovenen [Bederatzigarren Sinfonia](#) entzun zuen lehen aldiz. Izugarri liluratua gelditu zen, hainbesteraino, non, sinfonia bat idaztea erabaki baitzuen tonalitate berean: re minorrean, alegia. Hurrengo urtean, Joachim adiskideari idatzi zion: "Azken udan, nire eskua probatzen aritu naiz sinfonia batean; are gehiago, lehen mugimendua orkestratu, eta bigarrena eta hirugarrena ere osatu ditut". Zirriborroa bi pianorako instrumentatua zegoen. Brahmsen, ordea, ideia hura alde batera utzi eta materiala ondoko orkestra-lan batzuetan berrerrabili zuen: lehen eta bigarren mugimenduak, zehazki, *Pianorako 1. Kontzertua* laneko lehen bi mugimenduak izan ziren, urte hartan berean lantzen hasitakoa eta 1858an bukatu zuena. *Scherzo*, berriz, *All Flesh* izenarekin

"Nazioa harro egon daiteke Brahmsen sinfonia berriaz, atsegin iturri agortezina baita, bai eta azterketa emankorrerako iturria ere". Eduard Hanslick.

txertatu zen *Requiem alemana* obran; azken hori 1857tik 1868ra bitarte ondu zuen.

1860ko hamarkadaren hasieran, sinfonia konposatzeko asmoari berreldu zion eta horrelaxe iragarri zien Clara Schumann eta Albert

Dietrichi, eta horrez gain, jakinarazi zien lehen mugimenduaren hasierako bertsioa osatu zuela. Lana oso mailaka landu zuen eta baliteke amaiera 1868ra arte ondu ez izana. Konposizioa egin bitartean, kontu handiz jokatu zuen, bere buruarendako oso kritikoa beti, Beethovenen pisua nabari zuelako, bai eta publikoaren eta kritikarien espektatibak ere. Azkenean, 1876ko azaroaren 4an, sinfonia Karlsruhe hirian estreinatu zen, eta konpositorearen lagun batek, Otto Dessoffek, zuzendu zuen. Vienako kritikarien zorrotasunaz jabeturik, lanaren erabateko estreinaldia hiritik kanpo egitea erabaki zuen, arrakasta izateko aukera handiagoa izate aldera. Handik gutxira, urte hartan berean, Vienan eman zen lehendabizikoz; sekulako arrakasta izan zuen eta, berehala, hura Beethovenen "Hamargarrena" zela aldarrikatu zen.

Brahmsen, zalantzarik gabe, Hans von Bülowengandik zetorren laudorio hura ulertu zuen (eta, geroago, eskerrak ere emanen zizkion, tradizionalisten eta modernisten arteko lehian bere alde atera zelako), baina laudorio horrek arbuio sentimenduak ere eragin zituen gure konpositorearengan.



Entsegu Irekiaren Fitxa Didaktikoa
Apirilak, 28 11:00 Baluarteko areto nagusian
NOSeko 10.denboraldi-kontzertua

Agerikoak dira bai Beethovenen eragina, bai harekiko hurbiltasuna, baina era berean nabarmendu behar da lehen mugimendua aberastasun kromatiko handiko idazkera kontrapuntistiko eta sonoritatea dituela, eta horiek zuzenean daude Bachen obrei lotuta; [San Mateoren araberako Pasioa](#) lanari, bereziki.

Harrera ona izanik ere, Brahms ez zen kontent gelditu eta bigarren mugimendua zabal berraztertu zuen, sinfonia argitaratu baino lehen. Hala ere, garaipen horrek emaniko konfiantzari esker ("Beethovenen pausoak" atzetik sentitzeak eragiten zion segurtasunik eza kontuan harturik), *Bigarrena* berehalakoan konposatzeari ekin zion.

Izan ere, *Lehenari* beste hiru sinfonia jarraitu zitzaizkion, bai eta hainbat orkestra-lan ere. Lehen sinfonia munduari emateak eragindako lan luze eta nekosoaren ondotik, [Bigarren sinfonia](#) azkar samar ondu zuen, 1877an: gero, [Hirugarrena](#) (1883) eta [Laugarrena](#) (1885) etorri ziren.

Berez aldarrikatu beharra dago Brahmsen *Lehen sinfonia* eta ez, ordea, Beethovenen oinordeko izateagatik. Izan ere, obra horrek dakar sinfonia izan zitekeenaz guztiz bestelako ideia. Ez da harrizkoa 14 urtez konposatzen aritu behar izatea: XIX. mendearen bukaerako sinfonia-proiektua berritzen ari zen. Sinfonia horren bidez, Brahms generoa behartu zuen bere barnera itzultzeraz, bere muinera, hala zentzu musikalean, nola emozionalean; izan ere, erabat bideratua baitago bere material musikalaren barne funtzionamendura, programa adierazkor irekia izan ordez.

Formaren eta estiloaren azterketa laburra

Brahmsen izaera berezkoa eman zion bere lau sinfonietako bakoitzari. Haietako bakoitza baita oinazean, debekuetan, arrakastan eta bizitzaren gorabeheretan zaildutako gizaki baten sorkuntza.

Lehen guztien arteko dramatikoena da, eta ez du falta nola-halako herabetasunik bere keinu handi eta enfatikoetan. Bere lirismoari eta gai-batasunari begira, iritzi gehienek esaten dute sinfoniarik handienetako bat dela Austria eta Alemaniako tradizioan. Beethovenen lanen zordun, [Bosgarrenaren](#) eragin nabarmena jaso zuen. Artetik esateko, Richard Taruskinek esan zuen Brahmsen "ereduen eredu" aukeratu zuela bere *Lehenaren*. Harekin ere tonalitatea eta zuzendaritza partekatzen ditu (biak ere zailtasunez mugitzen dira garaipen-amaierara iristeko, do maiorrean). Gainera, Brahmsen sinfoniako gai nagusiaren zuzeneko inspirazio-iturria Beethovenen *Bederatzigarrenaren* gai nagusia izan zen; antzekotasun hori aipatu zitzaionean, Brahmsen berak erantzun zuen: "Edozein astok ikus dezake" .

Johannes Brahmsen *1. Sinfonia Do minorrean, op. 68* lau mugimendutan egituratua dago:

- I. Un poco sostenuto – Allegro – Meno Allegro
- II. Andante sostenuto
- III. Un poco Allegretto e grazioso
- IV. Adagio – Più Andante – Allegro non troppo, ma con brio – Più Allegro

Lehen eta laugarren mugimenduetan, Brahmsen estiloaren ezaugarri nagusietako baten aurrerapena ageri da: gaiaren eraldakuntza, bi mugimenduetarako sarreretan ilustratua. Haietan, Brahms hurbilago dago Liszt eta Wagnerren metodoetatik Beethovenen metodoetatik baino. Mugimendu geldoak (bigarrena eta hirugarrena) txanponaren beste aldea dira: lirismo izugarria eta konpositorearen adierazkortasun asaldatua.



Entsegu Irekiaren Fitxa Didaktikoa
Apirilak, 28 11:00 Baluarteko areto nagusian
NOSeko 10.denboraldi-kontzertua

Instrumentuei dagokienez, orkestrazioa nahiko tradizionala da:

- zeharkako txirula 2, eta 2 oboe, 2 klarinete eta 2 fagot, gehi kontrafagota
- Metalak: 4 tronpa, 2 tronpeta eta tronboi
- Perkusioa: tinbalak
- Hariak: biolinak I, biolinak II, biolak, biolontxeloak eta kontrabaxuak.

50 minutu inguruko iraupena du.

[Lehen mugimendua](#) sarrera geldo batekin hasten da eta, hartan, gero Allegro bihurrian entzunen diren garrantzizko material tematiko guztiak agertzen dira erritmo pausatuan. Sarreran, mugimenduko gai nagusiaren bariazio oso landu bat entzuten da, baina erritmoa zehaztugabea da eta sinkopaz beterik dago. Sarrera hori sinfoniaren gainerakoa osatu ondoren idatzi zen.

Allegro-a, sonata forman, bat-batean hasten da. Gai nagusia pixka bat geroago agertzen da, biolinetan, eta pixkanaka, beste instrumentu batzuetara pasatzen joaten da; tinbalek, bitartean, Beethovenen *Bosgarrenaren* "patuaren gain" oinarritutako erritmo bat errepikatzen dute: "ta-ta-ta-taaaaan". Gai horretaz esan da "basatiki indartsua" dela, ia *scherzo* baten modukoa. Bigarren gaia lirikoagoa eta lasaiagoa da; haizeen kargura dago, oboearen eta klarinetearen kargura, bereziki, fagotak lagundurik. Garapenerako trantsizioa jarraitzen zaio, oso atal ezegonkorra da, eta bi gai nagusiak eta "patuaren erritmoa" konbinatzen dira. Laburbildumak ez ditu gaiak errepikatzen era literalean, ezta hasierako modulazioak ere, eta tonalitate nagusian mantentzen da. Mugimendua koda baten bidez itxi da, eta koda *crescendo* batekin eta modulazio kadentzial sorta batekin amaitzen da. [Bigarren mugimendua](#) baretasunaren eta kontsolamenduaren irudia da lehenaren aurrean. Bake-ikuspegi barea da, motibo soil baten bidez, biolinak sartua, eta tronpak eta hainbat haizek errepikatua. Mugimendua forma hirutarra du kodarekin eta izaera liriko sakona dauka. Zati-tako bakoitzak, aldi berean, bi zati ditu, eta bi gai ditu kontrastean. Hirugarren zatia lehenaren bariazio bat da, material tematiko berbera antzematen da baina tinbre arloko zenbait aldaketa ditu. Mugimendua ere koda batekin bukatzen da.

[Hirugarren mugimendua](#) dirdiratsuen da. Ez da berez *scherzo* bat, Brahmsen *intermezzo* hain bereizgarri horietako bat baizik. Minueta trioarekin deritzon formaren antza du, eta izaeraz alai da, baina era suabea eta soilean; halaber, nola-halako malenkoniak kargatua dago. Lehen atala Allegretto lasaitu bat da eta, bertan, mugimendu guztian nagusi diren bi gaiak aurkezten dira. Erdiko atala animatuagoa da, baina askoz ere laburragoa; bertan, lehenago entzundako materialak berragertzen dira. Garapen labur baten ondoren, Allegretto-a berragertzen da, orain bigarren atalak eraginda dagoena, eta bere erritmoa hasierako melodiei gainjartzen zaie, polirritmia efektu bitxia sortuta. Mugimendua pixkanaka desagertzen da azken kodarekin, *Poco a poco più tranquillo* gisa markatua.

Azkenean, [laugarren eta azken mugimendua](#) amaiera handientsu eta bozkariotsua da, eta klimaxa suspensez beterik dago. Mugimendu horrek Brahmsen moldeko irtenbidea dakarkio gure konpositoreak XIX. mendeko "arazo sinfonikotzat" jotzen zuenari, hots, obren pisua hasierako allegroetara makurtzeko joera eta egiturazko tentsio nagusiak lehen mugimenduaren bukaeran moldatzeko joera. Aitzitik, laugarren mugimendu honetan dena dago jokoan. Sinfonia guztiko luzeena da eta, hasieratik, drama garatzen da aurreko mugimenduetan baino agertoki ospetsuagoan.



Entsegu Irekiaren Fitxa Didaktikoa
Apirilak, 28 11:00 Baluarteko areto nagusian
NOSeko 10.denboraldi-kontzertua

Adagio formako sarrera batekin hasten da, izaeraz iluna eta nahasia. Gero, Allegroa hasten da, sonata forma aldatuarekin eta, bertan, argia ideien forman berragertzen da tronpen bidez. Iluntasunetik argira jotze aldera, Brahmsen melodia handitsu bat behar du: hain zuzen ere, Beethovenen *Bederatzigarren* sinfoniako gaiarekin konparatu den huraxe. Melodia hori, ia abesbatza bailitzan, hainbat aldiz entzuten da trantsizioari bide eman aurretik; eta trantsizioan, "melodia alpetar" bat aurkezten da, musika tradizionalak inspiratua dagoela ematen duena. Ondoren, bigarren gaia heldu da, hari baxuek aurkeztua, eta lotura duena bai melodia alpetarrarekin, bai sarrerako erritmoarekin.

Brahmsen zorion-txartel batean idatzi zuen lehen aldiz "melodia alpetarra", Clara Schumann zuzendua, 1868an. Hartan, hauxe erantsi zuen: "Hau da tronpa alpetar batek gaur jotzen zuena".

Garapena gaiaren agerpen batekin hasten da, eta bere osoan interpretatzen da. Aurreko gaien bariazioak gertatzen dira bai gaitan eta motiboetan, bai tonuetan eta harmonietan (melodia alpetarra barne), atal ezegonkor batean espero bezalakoak, baina harrizkoa da lehen mugimenduko gai nagusiaren berragerpena. Espero ez bezala, garapenak ez dio bide ematen material tematiko nagusien laburbildumari, baizik eta koda luze bati, Do maiorreko tonalitatean ezarria, eta mugimendua –eta sinfonia– garaipen moldean amaitzen duena.

EMANALDIAZ ARDURATUKO DIRA...

Orkestrako zuzendaria



Carlos Miguel Prieto hainbat orkestratan da zuzendari titularra, hala nola Mexikoko Sinfoniko Nazionalan, Louisianako Sinfonikoan eta Mineríako Sinfonikoan. Houston Symphony Orkestrako zuzendari elkartua izan zen.

Orkestra garrantzitsuak zuzentzeko gonbidapena jaso du, hala nola New York Philharmonic, Boston Symphony Orchestra, Chicago Symphony, London Royal Philharmonic, Xalapako

Orkestra Sinfonikoa eta Indianapolisko, San Antonioko, Floridako eta Nashvilleko orkestrak, besteak beste. Azkenaldiko eta etorkizuneko konpromisoen artean, nabarmentzekoak dira Londresko Orkestra Filarmonikoarekin egindako debuta, Minnesotako Orkestra, Estatu Batuetako Orkestra Sinfoniko Nazionala, Espainiako Orkestra Nazionala, Galeseko BBCko Orkestra Nazionala eta Los Angeles New Music Group; nabarmentzekoa da, halaber, NDR Elbphilharmonie-ra itzuli izana, Frankfurtuko Irratiko Orkestra Sinfonikoa, Hallé, Liverpooleko Errege Orkestra Filarmonikoa, Bournemouteko Orkestra Sinfonikoa, Estrasburgoko Orkestra Filarmonikoa, Auckland Philharmonia, Gaztela eta Leongo Orkestra Sinfonikoa eta Bilboko Orkestra Sinfonikoa.

Prinetongo eta Harvardeko unibertsitateetan graduduna, Musika Kritikarien Mexikoko Batasunaren saria jaso du, bai eta Mozart musikaren merezimenduko domina ere, Mexikoko eta Austriako gobernuen eskutik, hurrenez hurren. Berrikitan, Musical Amerika-k 2019. urteko zuzendari izendatu du.



Entsegu Irekiaren Fitxa Didaktikoa
Apirilak, 28 11:00 Baluarte areto nagusian
NOSeko 10.denboraldi-kontzertua

Nafarroako Orkestra Sinfonikoa



Orquesta Sinfónica de Navarra,
por el Estudio fotográfico Pujol

Pablo Sarasatek 1879an sortua, Nafarroako Orkestra Sinfonikoa jardunean ari den talderik zaharrena da Espainiako orkestren artean. Gaur egun, Baluarte Fundazioan sarturik dago, nagusiki Nafarroako Gobernuak finantzatzen duena, eta Foru Komunitateko orkestra ofiziala da. Ehun eta berrogei urteko ibilbidean, Espainiako zein atzerriko auditorio, opera-denboraldi eta jaialdi nagusietan aritu da. Kontzertu batzuek garrantzi berezia izan dute; horien artean daude Parisko Théâtre des Champs Elysées eta Théâtre du Châtelet antzokietan hainbat aldiz emanikoak eta Universal Music zigiluak antolatutako biraren barnean Europako auditorio garrantzitsuetan egindakoak.

Pablo Sarasate konpositore eta biolin-jotzailearen erreferentziatzko interpretea den aldetik, nafar konpositorearen lan guztien grabazioa egin du Naxos-erako Tianwa Yang biolin-jotzailearekin; esan behar da nazioarteko kritikak aho batez laudatu duela grabazio-lana. Zigilu berarekin, OSN-NOSek, halaber, grabazio sorta garrantzitsu bat egin du Antoni Wit maisuarekin.

Nafarroako Orkestra Sinfonikoa kontzertu-denboraldien bidez aurkezten da Nafarroako publikoaren aitzinean, bai Iruñeko Baluarte Auditorioan, bai Tuterako Gaztambide Antzokian, eta, laster ere, Tafallako Tafalla Kulturgunean. Bestalde, gizarte nahiz hezkuntza jarduera garrantzitsua garatzen du Foru Komunitate guztian, "Sinfonikoa Nafarroan" programaren baitan, eta grabazioak egin ohi ditu AMAENerako, hau da, Nafarroako Musikaren eta Arte Eszenikoen Artxiborako. Etorbizun hurbilean, hainbat grabazio-proiektu ditu aurreikusitakoak hala musika sinfonikoan nola zinemako musikan.

María Setuain Belzunegui, hezkuntza-materialaren sortzailea

Especialista da Musika Bitartekaritzan Sorbonako Unibertsitatean, irakaslea eta txirularia, [Musicados](#) blogaren egilea da. Aldian-aldian aritzen da lankidetzan hainbat entitaterekin, ekintza sozio-hezigarriak pentsatu, diseinatu eta egiteko, betiere musika ardatz hartuta.